

BASKEPENSIONES 30 GAPI



INBERTSIO POLITIKA

Errenta aldakor nazional eta nazioartekoa neurrian erabilia, gehienez % 30, epe ertain eta luzean errentagarritasun erakargarriak lortu nahi dituzten pertsonentzat.

2021/08/31ra Errentagarritasunak UTB

1 hilekoa*	3 hilekoa**	Urtekoa*	Urte 1	Urte 3	Urte 5	Urte 10
%0,48	%1,62	%3,46	%7,27	%3,33	%2,43	%3,26

*Urtebete baino epe laburragoak diren errentagarritasunak ez dira urtekotzen.

2021	2020	2019	2018	2017	2016	2015
%3,46	%2,97	%7,93	-%5,65	%3,06	%1,19	-%0,75

*Iraganeko errentagarritasunek ez dute garantizatzen etorkizuneko errentagarritasunik.

2021/08/31ra Estatistikak

Lurrunkortasun 1 urte**	%3,49
Lurrunkortasun 3 urte**	%5,12

**Informazio hau ez dago erabilgarri, fondoaren antzinatasuna edo inbertsio-politikaren azken aldaketatik igaro den denbora, adierazitako epea baino txikiagoa denean.

HILEKO IRUZKINA

Arlo makroekonomikoan, fokua, inflazioaren azken hileotan zentratua, hazkuntza ekonomikoan jarri da berriz ere. Abuztuaren zehar, moteltzea adierazten zuten datu makroekonomiko batzuk izan dira hainbat zona geografikotan eta ekonomia hainbat eremutan, Covid 19aren olatu berriaren kutsatzeak mugatzeko ezarritako murrizketak direla eta. Nagusiki Asia zonan delta bariantearen hedapenak, Txinaren suspertzearen nolabaiteko moteltzea eta hango gobernuaren esku hartzeko neurriek zalantzak sortu dituzte suspertze orokorraren inguruan. Izan ere, Txinako Banku Zentralak atzera egin behar izan baitu pizgarriak kentzeko prozesuan. Mundu mailako gainerako diru agintariak ildo berean egin dute lan, nahiz eta inflazio datuek altu jarraitzen duten.

Ipar Amerikako uztailleko IPCaren datuak prezioen gorakada adierazten zuen berriz ere, baina mantoagoa, Fedaren diskurtsoaren ildo berean, zeinak dioen inflazioaren igoera aldi baterako dela eta goiz dela tipoen igoerei buruz hitz egiten hasteko. Ondorioz, Erreserba Federalaren presidentea, Jerome Powell, nahiz eta urte bukaerarako aparte pizgarriak pixkanaka murrizten hasiko dela jakinarazi, ezohiko interes tasen maila murriztuek jarraituko dutela nabarmendu zuen. Europa mailan, hausnarketa estrategiko baten ondoren, BCEak Fedak jarritako bideari jarraitu dio, eta etorkizuneko inflazio handiagoa baimenduko du pizgarriak kendu aurretik. Zerga arloan, suspertze ekonomikoari laguntzeko neurriak bilakatu dira protagonista. Estatu Batuetako

Senatuak 1 milioi dolarreko oinarriko azpiegituren paketea onartu zuen, non 550.000 milioi inbertsio berriei dagozkie, dagoeneko onartuta dauden sailen eratorriak baitira gainerakoak. Horrekin guztiarekin, abuztua irabaziekin bukatu zuten burtsek. Amerikako indize nagusiek errekor berriak izan zituzten eta European, Stox 600 eta Alemaniako Dax indizeak maximo historikoetara hurbildu ziren. Wall Streeten, aldiz, Nasdaq indizea % 4,16 igo zen, S&P 500 indizeak % 2,90 eta Dow Jones indizea, aldiz, % 1,22. Europako plazei dagokionez, Eurostoxx 50 indizeak % 2,62ko igoera izan du, eta Ibx 35ak, aldiz, % 1,97. Japoniak eta emergenteen multzo osoak ere % 2,95 eta % 2,42ko igoerekin bukatu zuten hila, hurrenez hurren. Errenta finkoan, udan zehar, interes tasen murrizketak izan


ditugu, nahiz eta abuztuaren zehar efektu hori aldi batean alderantzizkatu den. Hortaz, AEBko 10 urterako zorraren interesak % 1,31ekin itxi zuten uztaila, eta Alemaniako zorrak, aldiz, -% 0,38arekin. Espainiako hamar urterako tasari dagokionez, haren errentagarritasuna % 0,34ra arte joan zen. Kredituak, aldiz, positiboan bukatu zuten hila errenta finko pribatuko diferentzialak estutuz. Dibisen merkaturaren, dolarren balioa igo da euroarekin. Azkenik, lehengaietan, petrolioaren prezioak 2020ko urriaz geroztik izan duen galera handiena izan du Ekialde Ertaineko tentsioen, delta bariantearen hedapenaren eta suspertze ekonomikoaren erritmo mantoagoaren eta dolarra garestitzearen ondorioz. Urreari dagokionez, 1.813,62\$/ontza-rekin bukatu du, aldaketarik gabe.

EZAUGARRI OROKORRAK


Ondarea:	2.311.473.513,26
Komisioak guztira:	%1,60
Harpidetza komisioa:	%0,00
Errenbolsio Komisioa:	%0,00
Arrisku-profila:	Ertaina
Inbertsiorako gutxieneko epea:	-



Zorroaren banaketa



Errenta aldakorreko zorroaren banaketa geografikoa



Dokumentu honen xedea informazioa ematea da eta inola ere ez da, ez kontratu-elementua, ez gomendioa, ez aholkularitza personalizatua, ez eskaintza, eta ez eskara ere. Dokumentu honek ez du ordetzen edozein inbertsio erabaki aurretik legez kontsultatu behar den informazioa; legezko informazioa nagusitzen da edozein desadostasun izanez gero. Inbertsioak merkatuaren gorabeheren mende daude, eta baloreetako eta beste finantzazrenasun batzuetako inbertsioetako berezko arriskuei lotuta; horregatik, Funtzaren eskuratzeko balioak eta lortutako errentagarritasunak gora nahiz behera egin lezakete, eta litekeena da inbertsioleak hasieran inbertitutako zenbatekoa ez berreskuratzea. Funtzaren legezko informazio-dokumentu guztiak (IFD, liburuxka, aldizkako txostenak, etab.) www.kutxabankgestion.es webgunean, enfitate komertzializatzaileen webgunean eta CNMVren erregistroetan kontsultatu daitezke.

BASKEPENSIONES 30 GAPI

BASKEPENSIONESEN ONURAK:

- Aurrezteko finantza-tresna, zure etorkizuneko pentsio publikoa osatzen laguntzeko.
- Nahi duzun eta ahal duzun moduan aurrezteko malgutasun osoarekin.
- Inbertitzeko politika desberdina duten Baskepensiones desberdinen artean zure aurrezkia askatasunez mugitzeko aukera, zure profilaren arabera hobeto egokitzeko.
- **Konfiantza Kutxabanken.** Epe luzerakoak izan daitezkeen eragiketetan garrantzitsua da.
- **Onurak Kutxabaneko beste produktu batzuetan** (gordailuetan, maileguetan, eta abarretan).

Eta gainera, banakako BGAE denez, **PFEZaren Zerga Oinarria murrizten duten ekarpenetarako zerga-tratamendu onenaz balia zaitzke.**

BASKEPENSIONES 30 PLANAK HONAKO ONURAK DITU:

KUDEAKETA PROFESIONAL AKTIBOA, inbertsioak merkatuen inguruabarretara egokitzeko. Eta **OROKORRA**, dibertsifikazio geografiko eta sektorialarekin.

ARRISQUAREN KONTROLA. Aktiboen analisi eta jarraipen etengabea egiten dugu errentagarritasunaren eta arriskuaren arteko oreka onena lortzeko.

EGUNEROKO JARRAIPENA

Espainiako ondare-kudeatzaile nagusietakoaren **ESKARMENTU ETA KALITATEA** (Kutxabank Gestión).

ZEURE
B
PLANA

**BASKE
PENSIONES**

BANAKAKO BGAEa
Kutxabank SA
Bazkide sustatzailea.
Kutxabank Gestión
IKESK SAU Ondare
Kudeatzailea.



PROBA EZAZU ERRETIRORAKO GURE SIMULAGAILUA

Zure egoerari buruzko banakako txostena prestatuko dizugu. Simulagailuarekin zenbateko pentsioa kobratuko duzun, erretiroa hartutakoan bizimoduari eusteko zenbat aurreztu beharko duzun eta zure beharrianetara zein plan hobeto egokitzen zaizun kalkulatu ahal izango duzu.

**Hasi etorkizuna planifikatzen,
Baskepensioneseekin:
SIMULAGAILUA**